



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EHU Soziologia I sailaren laguntzarekin.



Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna

L.G.: SS-1374/2007

urria-octubre-octobre 2007

Lan koaderno/Cuaderno de trabajos/Cahier de travaux

2

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| Sar hitza..... | 5 |
| Euskal Herriko demografia zertan den. Sarrera..... | 7 |
| Euskal Herriko demografiaren bilakaera azken 100 urtetan..... | 11 |
| Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu? | 17 |
| 1.- Ugalkortasunaren inguruko gogoeta soziologikoa | 17 |
| 2.- Ugalkortasunarengan eragina duten faktoreak | 19 |
| 3.- Gaur egungo egoera | 22 |
| 4.- Aurrera begira, zer datorkigu? | 24 |
| Egungo egoeraren sintesia eta ondorio nagusiak | 27 |
| Iritzia. Ugalkortasuna atakan | 33 |
| Grafiko eta taulak: demografiaren inguruko datuak..... | 37 |
| 1.- Demografia datuak..... | 37 |
| 2.- Bizikidetzeta eta familia | 53 |





Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna



Sar Hitzza

Esku artean duzun txostena Gaindegiak 2006ko urrian “**Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian**” izenburupean egindako jardunalditik eratorritako ikerketa eta gogoeta lanen bilduma duzu.

Demografiaren bilakaerak, eta kasu honetan, ugalkortasunaren azterketak Euskal Herriaren oraina ezagutu eta etorkizunean gertatuko diren joerak ikusten laguntzen digu. Honek lotura zuzena du herri baten garapenean, kulturaren biziraupenean, ekonomiaren sustentagarritasunean, familia eruedetan... Gure errealitatearen ezagutzak eta emandako eboluzioaren azterketak geroa ezagutzen eta aurreikusten laguntzen digute. Asmo hori betetzeko antolatu zuten EHUko Soziologia I sailak eta Gaindegiak jardunaldi hau.



Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian

2006-10-20

EHU Soziologia I Saila/Gaiendegia

Egitaraua:

9.00 Dokumentazioa jaso

9.30 Sarrera hitzaldia: Euskal Herriko demografia zertan den

(Ane Larrinaga eta Mila Amurrio, EHUko irakasleak)

10.00 Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna, ezagutu beharreko datuak

(Amaia Elizagarate, soziologoa, Gaiendegia)

11.20 Atsedenaldia

11.50 Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu?

(Marta Luxan, EHUko irakaslea)

13.30 Amaiera



Euskal Herriko elikagai eta giza garapenerako helburuko
 Dokumentazioaren eta Informazioaren Nazioarteko Erakundea
 (Euzko Leizola) - Development Economics in Social & Policy Studies
 Harreko egileak: Pellok 2010 Araba - www.gaiandegia.org - Tf: +34 943 204 305



Ugalkortasunaren azuia etorkizuneko Euskal Herrian

Euskal Herriaren oraina zein etorkizun hurbila nolako izango den irudikatze ezinbestekoa dugu bilakaera demografiko ezagutzea eta horixe da, hain zuzen ere, jardunaldi honen helburu nagusia: bilakaera demografikoaren inguruko datu eta gogoeak plazaratzea. Euskal Herriko populazioaren ezaugarri garrantzitsuenetakoak bere zahartze prozesua izanik, horrekin estuki lotuta dauden zenbait gai sakon jorratzea ezinbestekoa da.

Ugalkortasunari buruz hausnarketa egiteko, hainbat gai aztertuko ditugu jardunaldian: Euskal Herriko datuak Europa eta munduko datuekin alderatuta, ugalkortasunari buruzko erabakiak zein migrazioak adin egituren izaten ari diren eragina, eta haurrak izateko edota ez izateko erabakian eragina izan dezaketen faktoreak, hala nola ekonomia, denboraren erabileria, genero eta belaunaldien arteko harremanak edota norberaren bizitzaren inguruko ibaropenak.

Datuak datu, azterketa estatistikoarekin batera etorkizunari begiratuko diegu aurreikuspena eginez, bai demografian, bai politika publikoetan.

Eguna: urriaren 20a
Lekua: BBK eta UPV-EHUKo Bilboko egoitza nagusia (K/ Banco España, 2)
Ordua: 9:00etatik 14:00etara
Hizkuntza: euskara
Matrikula: 6 euro burretik ordainduz, 10 euro egun berean
Itzesa emaitzok: jardunaldia@gaiandegia.org
Argibideak: 943 204 365
www.gaiandegia.org/jardunaldiak/demografia
Antolatzailea: Gaiandegia
Laguntzaileak: UPV-EHU

Egitaraua

- 9:00** Dokumentazioa jaso
- 9:30** Sarrera hitzaldia: *Euskal Herriko demografia zertan den* (Ane Larriaga eta Milla Amurrio, EHUKo irakasleak)
- 10:00** *Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna, ezagutu beharreko datuak* (Amaia Elizagarate, soziologoa, Gaiandegia)
- 11:20** ATSEDENALDIA
- 11:50** *Prospekzio demografiko. Zer datu-torgu?* (Martha Luxan, EHUKo irakaslea)
- 13:30** AMAIERA



Sarrera: Euskal Herriko demografia zertan den

Mila Amurrio eta Ane Larrinaga, EHUko irakasleak

Lan honen helburua Euskal Herriko ugalkortasuna ikuspegi demografikotik aztertzea da. Ugalkortasunaren azterketa egiterakoan abiapuntutzat hartu behar dugu prozesu demografiko hori ez dela hutsune batean garatzen, baizik eta instituzio sozialen barnean eta testuinguru sozial eta historiko jakin batean. Ikuspegi demografikoak errealitate sozialaren dimentsio kuantitatiboak azpimarratzen ditu eta neurketarako tresnak garatu ditu. Baina, adierazle demografikoek erakusten dizkiguten portaerak gogoeta soziologikoarekin uztartzen direnean baino ez dute hartzen zentzu osoa. Izan ere, gertakari demografikoen lehen zergatiak gizartean bilatu behar dira eta gertakari horien ondorioak ere gizartera itzultzen dira.

Ikuspegi demografikoak **Trantsizio Demografikoaren Teoria** erabili du erreferentziazko marko teoriko orokor gisa herrialde garatuetakoko populazioaren dinamika esplikatzen. Teoria horrek funtsean gizarteko heriotza- eta jaiotza-tasak jartzen ditu harremanetan. Abiapuntutzat hartzen du lehen fase batean bi tasa horiek altuak zirela, eta, trantsizio baten ondoren, azken fasean baxuak izatera igaro zirela, gizartea bera nekazaritza ereditutik sistema industriala igaro zen aldi berean. Bitarteko fasean, populazioaren hazkunde azkarra gertatu zen, hilkortasuna kontrolatzeko gaitasunak ez zuelako pareko ahalmenik lortu jaiotzak kontrolatzeko ahalmenean. Hartara, denbora batez, jaiotzak heriotzak baino askoz ere gehiago izan ziren.

Heriotza-tasen jaitsierak trantsizio horren hasiera ekarri zuen. Hauxe da Mendebaldeko dinamika demografikoaren ezaugarrietako bat. Jaitsiera hori bizi mailak eta ingurugiroak izandako hobekuntzarekin lotuta dago baita elikaduraren eta osasun baldintzen garapenarekin ere. Esan dugun bezala, hasiera batean heriotza eta jaiotzen arteko desfaseak populazioaren itzelezko hazkundera eragin zuen. Baina, prozesuaren azken unean, jaiotzak beherantz joan ziren: bikoteen elkarketetan gertatu ziren joera berriak eta kontrazepzio metodoen hedapenak ugalkortasun nahia gutxitu zuten; apurka-apurka, gero eta jaiotza txikiagoa hilkortasun oso txikiarekin orekatu zen; horrek populazioaren hazkunderaren aukerak mugatu zituen.

Beraz, aldaketaren **lehen ardatza heriotza-tasen jaitsiera** izan bazen, aldaketaren **bigarren ardatza ugalketaren esparruan burututako iraultza** izan zen. Ildo horretan, jaiotzetan izandako aldaketek, modernizazioarekin batera, familiaren barne egituran eta harreman pribatuen esparruan gertatzen ari zen iraultza iragarri zuten. Izan ere, familiaren instituzioa eraldatu egin zen, tamainan ez ezik, egituran eta helburuetan ere.

Trantsizio demografikoaren eredu teoriko hau, alde batetik, Mendebaldean bizi izandako aldaketa deskribatzeko erabili izan da, eta, bestetik, herrialde ez garatuak bilakaera demografikoari buruzko predikzioak egiteko. Hala ere, garapen bidean dauden herrialdeetan gauzatu den dinamika demografikoa eta gizarte industrialetan burututakoa ez dira berdinak izan. Gizarte ez garatuetan heriotzak Mendebaldean baino askoz ere azkarrago jaitsi dira, baina jaitsieraren arrazoiak gizarte horietatik at bilatu behar dira eta ez barneko garapen industrialak eragindako bizi mailari esker. Jaiotzei dagokienez, jaisten badoaz ere, heriotzak baino askoz ere motelago jaisten dira. Horrela, populazioaren hazkunde erritimoa Mendebaldean garai aurreindustrialean baino askoz ere altuagoa da herrialde horietan.

Bestalde, teoriaren oinarri prediktiboa **modernizazio** prozesuan datza, esaten baitu behar adineko modernizazio bultzadarekin jaiotzak eta heriotzak beti aldatzen direla bide beretik. Hala ere, teoriak ez du zehazten zenbateko modernizazio maila den beharrezkoa eta ez du esaten zein une zehaztetan hasiko den jaitsiera. Oro har, ikusten denez, trantsizio demografikoaren ereduak kutsu etnozentrikoa dauka baita gehiegizko generalizazioa erabiltzeko joera ere.

Gizarte garatuei dagokienez, aipatu dugun marko teorikoak Mendebaldeko herrialdeak trantsizio demografikoaren amaieran —edo trantsizio demografikoa dagoeneko amaituta— kokatzen ditu eta, ustez, prozesu demografiko berri baten hastapenetan. Gizarte garatuek, hau da gure gizarteek, egitura demografikoa eta egitura kulturala eta ideologikoa aldatu dituzte euren sistema ekonomikoarekin batera. Horrela, trantsizio klasiko horretan —esaten denez— populazioek ikasi dute inposaturiko patuari aurre egiten bai ekonomian bai ugalketan. Izan ere, gizabanakoaren mailan burututako ugalketa-mekanismoen kontrola gizarte mailan lortu-

tako naturaren kontrolaren adierazpena da. Beraz, aurrerapen teknologikoak, esparru ekonomikoan eta industrialean ez ezik osasun teknologietan eta ingeniari-tza biologikoan ere adierazi dira.

Aurrerapen horiek, aldi berean, eragin sozial garrantzitsuak sorrarazten dituzte, besteak beste, gaur egungo Europako populazioaren bizitza itxaropena nabarmen luzatu da —Europako ekialdean salbu—, eta, orokorrean, bizi kalitatea ere hobetu egin da. Helduen ahalmen ekonomikoa gazteena baino handiagoa da eta, fase demografiko honetan badirudi seme-alabak ez direla hain beharrezkoak zaharren premia ekonomikoei irtenbidea emateko eta bai, aldiz, zama ekonomiko bat gurasoentzat. Beste maila batean, seme-alabak eragozpen bat ere izan daitezke gurasoen bestelako autogarapen premia batzuk asebetu ahal izateko. Il-do horretan, familia unitatearen erreproduktzioa, bai zentzu ekonomikoan bai sozialean, premia soziala izatetik hautaketa pertsonala izatera igaro da, eta hautaketa hori motibazio afektiboetan besterik ezin daiteke oinarritu gure gizartean. Horrela, aldaketa sozial eta familiarren atzean mekanismo ideologiko eta kulturalak atzematen ditugu gaur egun. Trantsizio demografikoaren amaierarekin batera, familiari buruzko eta nortasun indibidualari buruzko balio aldaketa izugarria nabarmendu da Mendebaldeko kulturatan. Horrek isla izan du adierazle demografiko guztietan, denak jaitxi baitira, jaiotza uneko bizi itxaropena kenduta.

Egoera berri horrek bultzatuta, **Bigarren Trantsizio Demografikoaren** kontzeptua sortu da, hain zuzen ere, Bigarren Mundu Gerratik hona Mendebaldeko herrialdeetan familiak bizi izan dituen aldaketak deskribatzeko. Aldaketa horiek, labur adierazita, honako gertakari hauetan adierazi dira: ezkontza adina atzeratu egin da, gora egin du bakarrik bizi direnen kopuruak, gora egin du ezkondu gabe dauden bikoteen kopuruak, gora egin du jatorrizko etxean bizi direnen kopuruak eta, hartara, atzeratu egin da gazteen emantzipazioaren adina; aldiz, gutxitu egin da ugalkortasuna, baina gora egin du elkartzeko libreen ugalkortasunak. Bestalde, dibortzio tasak eta elkarrekin bizi diren bikoteen banatze tasak ere gorantz joan dira, eta banatze osteko famili berreraikuntza ez da bideratu ezkontza berrietan, bizikidetasunean baizik.

Jakina, eredu horiek ez dira Europako toki guztietan modu eta denbora berean ezarri. Jokamolde berriak Eskandinaviatik zabaldu ziren Europako beste tokietara, iparraldetik hegoaldera, denbora desfase handiarekin, eta intentsitate desberdinarekin gauzatu dira eskualde eta gizarte sektoreen arabera. Izan ere, aurreko eredu demografikoaren haustura, esan dugun bezala, egiturazko aldaketa sozio-ekonomikoei eta balio sistemaren aldaketari lotuta dago. Batez ere, aldaketa kultural hori ez da oraindik indar berarekin gauzatu gizarte talde guztietan. Aldaketa kulturalak, besteak beste, familiarren eraketa eta familiarren egonkortasuna jotzen ditu bete-betean. Balioen aldaketak sekularizazioa eta indibidualizazioa ditu ardatz. Gaur egun esparru pribatuan banakoaren interes autonomoak nagusi egiten direnean, bai identifikazio sexualari dagokionez bai ugalketari dagokionez, zalantzan jartzen dira: familia barruko ohiko

agintea, generoen arteko ohiko rolen banaketa eta lan banaketa. Baina, oraindino, aurreko ereduaren eta eredu berrien arteko desfaseek tentsioak, egoera anomikoak eta kontraesanak sortzen dituzte pertsona askorentzat, bereziki, emakumeentzat.

Ikuspegi makro batean, Europako eredu demografiko berria, eta bereziki, ugalkortasunaren auzia, larritasunez aztertua izan da esparru politikoan. Ez da ahaztu behar, botere politikoetik, ugalkortasun baxua estatuen boterearen gainbeherarekin identifikatu dela behin baino gehiagotan. Administrazio publikoetan ugalkortasun txikiko portaera demografikoek sortu duten kezka hainbat iturritatik etorri da azken urteotan: batez ere, etorkizuneko lan merkatuaren murriztapenarekin identifikatu da eta populazio zaharra mantentzeko zailtasunekin. Ugalkortasuna suspertzeko ekintza instituzionalak kezka horren ondorio izan dira; ekintza horiek ez dira beti eraginkorrak izan hala ere. Bestalde, azken urteotako mugimendu migratzaileen ostean, badirudi immigrazioa ugalkortasun murriztaile horrentzako ordezkapen faktore bat izan daitekeela pentsatu dela eta, ondorioz, beste "giro" sozial bat hedatzen ari dela.

Dena den, gure azterketan azken fenomeno horrek ez du saihestu behar ugalkortasun murriztailearen zergatiak galdetzea. Hau da, zer nolako gizarte ereduak da gurea, alegia, erreproduzitzeko zailtasunak dauzkan gizarte ereduak? Zer nolako gizarte ereduak sortzen die hainbeste koste, bereziki emakumeei?

Izan ere, Euskal Herrian ugalkortasun txikiko ereduak dugu nagusi, baina herrialde desberdinetako jaiotze eta heriotza-tasa begiraturaz gero, errealitate desberdinekin egiten dugu topo. Biztanleriaren berezko hazkundea 2004. urtean positiboa izan zen Nafarroa Garaian, Gipuzkoan eta Araban. Negatiboa gainerakoetan. Euskal Herrian, Europan bezala, egitura demografikoa ez da homoginoa. Bizkaiko, Lapurdiko, Behe Nafarroako eta Zuberoako populazioek gainerako herrialdetako populazioek baino erreproduzitzeko zailtasun gehiago dute. Zerk eragiten ditu zailtasun horiek herrialde horietan? Portaera demografiko horien atzean arrazoi berdinak al daude? Zerk eragin du gainerako herrialdeen hazkunde positibo hori?

Bibliografía

B. ARREGI eta A. DAVILA (arg.) (2005). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia en Euskadi*. UPV-EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.

J. R. WEEKS (1990). *Sociología de la Población*. Alianza Editorial, S.A., Madrid.

Euskal Herriko demografiaren bilakaera azken 100 urtetan

Amaia Elizagarate, soziologoa

Euskal Herriko demografia aztertzerako garaian konturatzen gara azken 100 urtetan, hots, mende bateko tartean populazioa hirukoiztu egin dela. Milioi pasa izatetik hiru milioi pasa izatera igaro gara; 2006. urtean 3.005.670 biztanle estatistika institutu ofizialen arabera¹.

Populazioaren hazkunde honek aldi eta garapen desberdinak izan ditu. XIX. mendeko 90. hamarkadaren amaieran, milioi bat biztanleko muga gainditu zen Euskal Herrian. XX. mendeko 60. hamarkadan bi milioiko muga eta XXI. mendeko lehen hamarkadan hiru milioikoa.


Biztanleria hirukoiztearen faktore nagusienak

1897. urtean milioi bat pasatxo biztanle izatetik (1.054.769), 109 urte beranduago 3 milioi biztanle izatera pasa gara Euskal Herrian (3.005.670).

1. Datuak behin behinekoak dira. Iturria; biztanleria erroaldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

Grafikoan ikusi dezakegun bezala, Euskal Herriko biztanleriak goranzko joera etengabea izan du aurreko mende osoan zehar. Dena den, goranzko joera duen terro horren malda bereziki handia izan da garai batzutan eta ia laua besteetan.

1. Biztanleria. Euskal Herria 1977-2006



Iturria: www.datutalaia.net; biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

Oharra: Zehaztasunetarako ikusi www.datutalaia.net-eko taularen oharrrak.

1960. urte arte, biztanleriaren hazkunde iraunkorra eman da Euskal Herrian; XIX. mende amaieratik urte horretara arte milioi bat pertsona gehiago bizi zen egungo Euskal Herrian, 1.982.995. Baina hazkunderik esanguratsuena urte horretatik aurrera gertatzen da; 60. hamarkadan, milioi erdi biztanletan handitzen da Euskal Herriko biztanleria, eta 1970. urtean jadanik 2.565.377 dira. Hazkunde honen atzean biztanleriaren bizi-baldintzen hobekuntza, bizi-itxaropenaren luzatzea, 50-60 hamarkaden inguruan ezagutu genuen *baby-booma*, eta batez ere, Euskal Herriaren garapen industrialaren ondorioz jasandako immigrazio prozesua daude.


Ondoren, 1981. urte arte goranzko joera mantendu egin bazen ere, urte horretatik aurrera, hazkunde itzel hori eten egiten da; jaiotza kopuruak jaitsi egiten dira, immigrazio uholdea eten egiten da, Euskal Herritik kanpo doazen herritarrak datozenak baino gehiago izatera pasatzen dira...

Baina, 2000. urtetik aurrera biztanleriak berriz ere goranzko tendentzia hartu duela esan dezakegu, ez 50. 60. eta 70. hamarkadetan bezain indartsu agian, baina hartua du goranzko joera. Hazkunde horretan, noski, zerikusi zuzena dute azken urteetan jasotako etorkin berriek.

Euskal Herriko biztanle gehienak Bizkaian bizi dira. Herrialde hori eta Gipuzkoa dira gehien hazi direnak azken mendean. Azken 25 urteetan, berriz, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Araba hazi dira gehien.

3 milioi biztanle horietatik gehienak Bizkaian bizi dira, zehazki biztanleen herena baino gehiago (%37,9) herrialde horretan bizi da. Ondoren, bostetik bana inguru bizi da Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian (%23,0 eta %20,0 hurrenez hurren). Biztanle dezente gutxiago bizi dira gainontzeko 4 herrialdeetan; Araban %10,1, Lapurdin %7,6 eta, batez ere, Nafarroa Beherean %1,0 eta Zuberoan %0,5.

2. Biztanleriaren banaketa herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)




Iturria: www.datutalaia.net; biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

Oharra: Zehaztasunetarako ikusi www.datutalaia.net-eko taularen oharrak.

Goranzko joera etengabea aipatu dugu aurreko atalean, baina joera hau ez da eman herrialde guztietan. Hazkunde handiena, batez ere Bizkaia, eta Gipuzkoak ezagutu dute (1897. urtetik . 2006 urtera %291,0 eta %260,2 handitu da bi herrialde horien biztanleria, hurrenez hurren). Aldiz, Zuberoak eta Nafarroa Behereak biztanleria galdu egin dute (%37,0 eta %36,1 hurrenez hurren). Arabak, berriz, ia hirukoiztu egin du bere biztanleria, eta Lapurdik bikoiztu baino gehiago. Nafarroa Garaiak, azkenik, ia bikoiztu egin du.

Dena den, aipatu dugun hori azken mendeko joera izan da, azken 25 urteetan berriz joerak aldatu egin dira. Tarte horretan, biztanleria gehien irabazi duten herrialdeak Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Araba izan dira (%20ko hazkundearen bueltan). Gainontzeko lau herrialdeak berriz biztanleria galdu dute azken 25 urteetan, batez ere, Zuberoak. Aipatu behar dugu ere, 2001. urtetik aurrera herrialde guztiek biztanleria irabazi egin dutela, gehiago, batez ere Nafarroa Garaiak, eta baita Lapurdik eta Arabak, eta gutxiago gainontzekoak. Dirudienez, beraz, hiru herrialde horiek dira esandako etorkin berri horiek gehien jasotzen dituztenak.

3. Biztanleriaren bilakaera herrialdeka. Euskal Herria, 1877-2006 (%)




Iturria: www.datutalaia.net; biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

* Oharra: 2006. urteko datuak erroldako datuak dira, gainontzekoak zentsuetako datuak. Zentsuak egin ziren urteak ez datoz bat, lpar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian. Zehaztasunetarako ikusi www.datutalaia.net

Azkenik, aipatu behar dugu, herrialdeen barnean ere bilakaera ez dela homogeneoa izan; zonalde batzuk gehiago hustu dira eta beste batzuk gutxiago. Adibidez, 1981. urtetik 2001. urte bitartean biztanleria galdu dute Zuberoako eskualde guztiak, eta Nafarroa Behereko gehienak. Gipuzkoan ere eskualde guztiek biztanleria galdu dute, Urola Kostak izan ezik. Bizkaian eskualde gehienek biztanleria galdu dute ere, Plentzia-Mungiak eta Durangaldeak salbu. Arabako eskualdeek, berriz, biztanleria irabazi egin dute, Trebiñuko konderriak eta Arabako mendialdeak izan ezik. Nafarroa Garaian, ere, Iparraldeak eta Estellerriak biztanleria galdu duten bitartean, hegoaldeak eta, batez ere, Iruñeko eskualdeak eta Tuterako aldekoak, biztanleria irabazi dute. Azkenik, Lapurdi da herrialde bakarra non eskualde guztiek biztanleria irabazi duten.

Biztanleriaren hazkundera, eskualdeka. Euskal Herria, 1981-2001 (hazkundera %tan)



Iturria: www.datutalaia.net; biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

Oharra: Zehaztasunetarako ikusi www.datutalaia.net-eko taularen oharrak.



Prospekzio demografikoa. Zer datorkigu?

Marta Luxán. Soziologoa

1.- Ugalkortasunaren inguruko gogoeta soziologikoa

Datu demografikoak herri baten historiaren isla dira, portaera demografikoetan koitunturak zein aldaketa sozialek eragin handia baitute. Are gehiago, aurreko atalean aipatu moduan, gertakari demografikoen lehen arrazoiak gizartean bilatu behar dira eta gertakari horien ondorioak ere gizartera itzultzen dira.

Ugalkortasunaren inguruko gogoeta egiterako garaian aintzat hartzekoak dira, hala nola, ugalkortasunarengan eragina duten faktoreen aniztasuna, analisi demografikoan erabiltzen diren ikuskerak, eta gizonezkoek betetzen duten papera.

Alde batetik, ugalkortasunaren inguruko erabakiengan eragiten duten faktoreak anitz dira eta erabakien eta faktoreen artean dagoen harremana ez da kausala, hots, ez da ez zuzena ez eta erabatekoa ere. Hauxe da, 90.hamarkadan izandako jaiotzen beherakada ulertzeko ezin dugu lan-merkatuaren egoera soilik kontutan hartu, nahiz eta enpleguaren eta ugalkortasunaren artean nolabaiteko lotura badagoela ziurtzat jo. Era berean, Asiako zenbait herrietan

(Asiako Tigreak deitutakotan, adibidez) ugalkortasunaren jaitsiera ekonomia-hazkunde garaie-tan gertatu da.

Bestalde, koitunturazko datuak aztertzean oso informazio gutxi dugu belaunaldien portae-raren inguruan. Adibide berbera erabiliz, 90. hamarkadan ugalkortasun indize sintetikoa bat baino gutxiagokoa izan bazen ere, horrek ez du esan nahi urte horietan seme-alabak izaten ari ziren pertsonen seme-alaben batezbesteko kopurua batekoa baino gutxiagokoa izango denik.

| Koitunturazkoa (2004 Euskal Herria) | |
|-------------------------------------|--------------------------------------|
| Jaiotze tasa | Ugalkortasun indize sintetikoa (UIS) |
| 9,8 haur per 1000 bist. | 1,88 haur per emak. |

Iturria: Datu Talaia


| Belaunaldikoa | |
|---------------|---------------------|
| Urte aldia | Lortutako ume saila |
| 1960-1956 | 1,5 |
| 1955-1951 | 1,9 |
| 1950-1946 | 2,3 |
| 1945-1941 | 2,4 |
| 1940-1936 | 2,8 |
| 1935-1931 | 2,7 |
| 1930-1926 | 2,6 |
| 1925-1921 | 2,4 |
| 1920-1916 | 2,3 |

Iturria: Demografia eta Balidaziozko inkesta, 2002 (Eustat)

Honetaz gain, badirudi demografiaren arloan ugalkortasuna emakumeen gauza dela, emakumeek bakarrik erabaki eta gauzatzen duten kontua dela, gizona buruz oso informazio gutxi baitugu. *Txorakeria galanta!*, pentsa dezake norbaitek, baina ez egote honek eragin zuzena izan du, orain arte behintzat, portaeren azalpenetan. Esate baterako, askotan ugalkortasuna-ren jaitsiera emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzearekin lotuta dagoela esan da eta askoz ere gutxiagotan gizon gazteek lan-merkatuan duten egoerarekin harremana izan deza-keenik.

Gauzak horrela, ugalkortasunaren ardura, baxuegia edota altuegia dela, emakumeena baino ez dela ulertu izan da tradizionalki, horren isla populazio politikak izan direla. Era be-

rean, gizonak ernaltzaile hutsak bailiran agertzen dira, desio, ardura eta erabakitzeko gaitasunik gabekoak.



2.- Ugalkortasunarengan eragina duten faktoreak

Ugalkortasunarengan eragina duten faktoreak anitz direla aipatu dugu, eta ugalkortasunak faktore horiengan ere nolabaiteko ondorioak badituela gehitu behar. Baina zer nolako faktoreetaz ari gara? Lana eta etxebizitza, denboraren erabilpena, bizitzaren luzatzea eta norberaren aukeren inguruko itxaropenetaz, besteak beste.

Aipatutako lehenengo bi aztergaiei dagokienez, askotan entzun dugu heldutasuna edota erabateko hiritartasuna lana izan, gurasoen etxetik alde egin eta norberaren familia izango dena eratzten hasten garenean gureganatzen dugula. Egun, lana eta etxebizitzaren merkatuen egoera ikusita, gazteek zaila dute helduak bilakatzea.

Batez besteko gizarte denbora per jarduera, eguna, sexua, lurraldea eta aldia

| | Lana eta prestakuntza | | Etxeko lanak | | Gizarte-harremanak | | Aisi aktiboa eta kirolak | |
|------|-----------------------|-------|--------------|-------|--------------------|-------|--------------------------|-------|
| | Giz. | Emak. | Giz. | Emak. | Giz. | Emak. | Giz. | Emak. |
| 1993 | 4,15 | 2,04 | 1,03 | 4,16 | 1,16 | 1,04 | 1,22 | 0,58 |
| 1998 | 4,16 | 2,26 | 1,1 | 3,37 | 1,08 | 0,58 | 1,23 | 1,02 |
| 2003 | 4,14 | 2,35 | 1,1 | 3,31 | 1,04 | 0,52 | 1,27 | 1,08 |

Iturria: Denbora aurrekontuen inkestak (Eustat)

Enpleguari dagokionez, nahiz eta langabezia-tasak jaitsi diren prekarietatea oso zabaldua dago, batez ere behin-behinekotasunaren eta soldaten bitartez. Bestalde, etxebizitzaren partea gero eta handiagoa izan arren, azken urteetan izandako garestitze prozesua dela medio, etxebizitza ordaintzeko askoz ere lan-urte gehiagokoren etekina beharrezkoa da.

Beraz, gurasoengandik independizatzea ekonomikoki gero eta zailagoa da. Honek, zalan-zarik gabe, badu ugalkortasunarengan eragina: datuen arabera, egun, umeak izateko erabakia eta bikotearen elkarbizitza erabat lotuta baitaude; hauxe da, elkarbizitzarik gabe ez dago amerik.

Baina ekonomikoak ez diren faktoreak ere oso garrantzitsuak ditugu. Zenbait teorikoren arabera, arlo publikoan orokorrean berdintasunerantz aurrera egin bada ere, ikasketak eta lan merkatuari dagokionez, alegia, arlo pribatu, etxeko-lanak, zaintza eta abar zein babes neurriei dagokionez berdintasun maila oso ezberdinak daude Europako herrialdeetan. Azalpen hauen arabera, berdintasun desoreka honek eragina izango luke ugalkortasunean: zenbat eta desoreka handiagoa, orduan eta ugalkortasun txikiagoa.

Denboraren erabilpena desoreka hauek neurtzeko modu bat izan daiteke eta, 2003. urteko datuen arabera, emakumezkoek etxeko lanetan ematen duten denbora gizonezkoek ematen dutena baino hiru aldiz handiagoa da oraindik ere Bizkaian. Zaintzari dagokionez, gauzak ez dira oso desberdinak, zaintzaile gehienak emakumeak baitira: amak edota alabak.

Beraz, dirudienez generoen arteko harremanen aldaketa hasi baino ez da egin eta, sarrean aipatu denez, aurreko eredu eta eredu berrien arteko trantsizioak tentsioak, kontraesanak eta egoera anomikoak sortarazten ditu.

Honetaz gain, bada erabat demografikoa izan arren oso gutxitan aipatzen den gaia: zer nolako eragina du bizitzaren luzatzeak ugalkortasunaren inguruko erabakietan? Nire ustez, pen-

tsatzen duguna baino handiagoa. Egun laurogei urte baino gehiagoko pertsona bati gaztetan adin horretara helduko zela pentsatzen ote zuen galdetzean, ezetza da erantzunik arruntena. Aldiz, gaur egungo gazteek heriotza oso urrun ikusten dute eta bizitzan gauza askotarako denbora dagoela ere pentsatzen dute; honek gurasoak izateko erabakia atzeratzea dakarrela esango nuke, denbora dagoelako eta umeak izatea bestelako aukerekin² bateraezina dela uste delako. Bestalde, bikoteak egun duen zentralitatea ere aipagarria da, baina honetaz aurrerago hitz egingo dugu.

Zaintzaile nagusiaren senidetasuna, menpekoaren sexuaren arabera (%). Bizkaia 2002

| | senidea elkarbizit. | | | elkarbizit. ez senidea | | |
|---------|---------------------|-------|-------|------------------------|-------|-------|
| | gizon | emak. | guzt. | gizon | emak. | guzt. |
| bikotea | 38,1 | 24,8 | 30,3 | 6,5 | 9,6 | 8,7 |
| ama | 31,9 | 22,5 | 26,4 | 17,3 | 15 | 15,6 |
| aita | 0 | 0 | 0 | 6,7 | 0 | 2 |
| alaba | 19 | 36 | 28,9 | 13,2 | 35,1 | 28,7 |
| semea | 6,3 | 9 | 7,9 | 13,3 | 18 | 16,6 |

Iturria: Osasun Inkesta 2002 (Eusko Jaularitza).

Ikasketek azterketa berezia merezi dute, ikasketak garaia nabarmenki luzatu baita azkeneko hamarkadetan eta honek eragin zuzena izan baitu heldua bilakatzearen atzerapen horretan. Eragin hori aztertzerakoan, ikastea norberaren helburua izateaz gain, luzatze-estrategia hori gizarte osoaren estrategia izan dela gogoratu behar da, langabezia-tasak jaisteko egindako apustua. Azken finean, adin-ertainei lehentasuna eman izan zaie lan-merkatuan eta, horren ondorioz, krisialdiaren garaitik aurrera ikasketak luzatzeko joera bizi izan dugu, gazteen lan-merkatuzatzea atzeratzeko asmoz. Logikoa denez, adin-ertainei lehentasuna ematean heldua izateko unea atzeratzen ari da eta, horrekin batera, guraso izatekoa.

2. Hala nola, ikasketak, helburu profesionalak, aisialdirako, bidaiatzeko gogoak...

3.- Gaur egungo egoera

Bizitzaren luzatzea aipatu dugu eta horrekin batera ezinbestekoa dugu belaunaldien arteko harremanetaz hitz egitea. Egun, aiton-amonen papera biloben zaintzan oso garrantzitsua da eta askotan familiaren hurbiltasuna erabakigarria izaten da guraso izateko garaian. Hain dago hedatua ezen eta amonaren sindromeaz hitz egiten baita, lan-karga gehiegi duten emakume helduen kasuak anitzegiak direlako. Ondorio kaltegarriak alde batera utzirik, harreman hauetan, aitonen eta iloben arteko harremanetan, gizonezkoen papera birdefinitzen ari dela diote zenbait adituek, eta zenbait gizonen seme-alabekin inoiz izan ez zituzten ardurak bereganatzen dituztela.

Baina, belaunaldien arteko harremanak beste zentzu batzutan ere aldatu dira. Aurretik esan bezala, zalantzan jartzen dira familia barruko ohiko agintea eta generoen arteko ohiko rolen banaketa eta lan banaketa. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak ez dira, egun, iraganean izandakoa eta seme-alaba gehienek ez dute gurasoen agintetik askatzeko premia handirik.


Iraganari begira jarriz gero, ugalkortasunarekin lotuta dauden bizitza-aukeretan izandako aldaketa aipatu behar da. Hots, egun nahiz eta bikotea izan edota bikotekidearekin bizi, guraso ez izatea aukera onartua dela, lehen ez bezala. Bikotearen helburua ez da umeak izatea edo, izatekotan, ez da helburu bakar edota nagusia; bikote harremana ez dagoela umeak izateko hautaketari lotuta. Azken finean, lehen aipatu dugunez familia unitatearen erreproduktzioa, bai zentzu ekonomikoan bai sozialean, premia soziala izatetik hautaketa pertsonala izatera igaro da, eta hautaketa hori motibazio afektiboetan besterik ezin daiteke oinarritu gure gizartean.

Baina, zertaz ari gara familiaz mintzatzen garenean? Familia ala familietaz aritu beharko ginateke? Familia definitzerakoan, zer nolako harremanak aztertzen ari gara eta zeintzuk ez? Galdera hauen ildora Begoña Arregik zera adierazten du, familia-sarea bultzatzea, indartzea edota eratzea azken finean familia egiteko eta erreproduzitzeko beste modu bat dela, erreproduktzioa ez datzala soilik umeak ekartzean.

Aurrera begiratu baino lehen, Euskal Herriko lurraldeen artean dauden aldeak aipatzea ezinbestekoa dugu. Herrialde mailako datuak ikusteko aukera izan dugu, baina udalerrri mailakoak esku artean izango bagenitu, aldeak oraindik eta handiagoak direla baieztatuko genuke. Udalerrietako adin eta sexu egiturak eragin zuzena baitu ugalkortasunean eta, aztertu izan dugunez, egitura zein zahartze-indizeen artean aintzat hartzeko moduko ezberdintasunak daude. Esaterako, Nafarroa Garaian emakume gazteen ugalkortasun-tasek 2000. urtetik aurrera gora egin dute, 20 urte luzez izandako joera apurtuz eta beste herrialdeetako bilakaerari kon-

tra eginez. Aldaketa hau ulertzeko etorkinen portaera demografikoa aztertzea ezinbestekoa dugu.


Ugalkortasun indize sintetiko, herrialdeka. Euskal herria, 2004 %



Iturria: Aztikerrek kalkulatu. www.datutalaia.net

Oharra: 2004 urteko adin banaketaren datua eskuragarri ez dugunez, 15-49 urte bitarteko biztanleria kalkulatzeko, adin tarte horretako 2001eko portzentajea aplikatu diogu 2004ko biztanleria datuari.

Jaiotzak, heriotzak eta berezko hazkundea, herrialdeka. Euskal Herria, 2004



Iturria: www.datutalaia.net

4.- Aurrera begira, zer datorkigu?

Demografiaren zereginen artean, etorkizunean gertatuko denari buruz zenbait pista ematearena dago, ez zenbaki zehatzekin baizik eta joera eta balizko gertakizunekin. Euskal Herrian etorkizun hurbilean gertatuko dena aztertzeko hiru faktoretan oinarrituko gara: biztanleriaren

egitura eta migrazioetan, generoen arteko harremanetan eta familia eta berdintasunezko politika publikoetan.

Generoen arteko harremanen arloan, badirudi gauzak teorikoki praktikoki baino gehiago aldatu direla. Ziurrenez, praktikan aldaketa sakonagoak gertatuko balira, hau da, gizonetzkoek ardura handiagoa bereganatuko balute, ugalkortasun-tasak zertxobait igoko lirateke.

Bestalde, familia-eredu berriak direla eta, Mila Amurriok egindako sarreran Italiako kasua aipatua izan da: gauzak egun bezala jarraitzekotan, hemendik gutxira neba-arrebak eta osabazekoak desagertu egingo lirateke. Baina familia-eredu berri horiek bestelako familia-sareak osatuko dituztela aurreikus daiteke: bi aitona-amona baino gehiago edota guraso bakarreko neba-arrebak izatea eta abar.

Migrazioei dagokienez, atzerritik lanera datozen pertsonen populazioaren adin egitura gazteagoz gain ugalkortasun-tasak igo arazten dituzte, beraietako asko umeak izateko adinean baitaude eta izan izaten baitituzte. Beraz, zenbat eta etorkin gehiago orduan eta ugalkortasun handiagoa. Baina migrazio mugimendu ezberdinak daude, eta Iparraldean gertatzen ari denak, Frantziatik zein Hegoaldetik etortzen ari diren adin ertainetako biztanleen areagoz azterketa berezia merezi du.

Politika publikoak direla eta, egun bi eztabaida garrantzitsu daude. Alde batetik, ea eraginkorrak diren, hots, zein neurritan eragiten duten biztanleriak ugalkortasunaren inguruan hartzen dituen erabakietan. Bestetik, ea zenbait portaeren aldaketa bultzatu nahian ez ote duten betikoa errepikatzen, hau da, gizonetzkoen denbora emakumezkoena baino gehiago baloratzen. Teorikoki, politika hauek instituzio sozial desberdinen artean dagoen genero berdintasun mailaren desoreka txikitzen duten heinean, ugalkortasunerako pizgarri izango lirateke. Baina, familia edota bikoteei zuzendutako politikak jorratu beharrean pertsonen autonomia eta heldutasuna bultzatzen duten politikak martxan jartzea askoz ere eraginkorragoa izango litzatekeelakoan nago.



Egungo egoeraren sintesia eta ondorio nagusiak

Daturik esanguratsuenak

Ugalkortasunaren auzian ezin dugu jaiotza kopurua zenbatzera mugatu. Faktore askok eragiten dute seme-alabak izateko pertsonak eta bikoteek har dezaketen erabakian, eta ia guztiak eratzen ari garen gizartea eta bizimoduari oso estu loturik doaz.

Euskal Herrian badugu gure etorkizunari kezka eta arduraz begiratzeko ohitura. Herri txikia gara eta ongi dakigu zer den desagertzeko zorian egotea. Beharbada, historiak komunitateen iraunkortasuna ugalkortasunari lotu izan diolako, gurean ere erraz jo izan dugu gure Herriaren osasuna jaiotza kopuruaren arabera neurtzeari.

Baina egun badakigu, ugalkortasuna ez zaiola bertakoen aipatu tasari bakarrik lotzen, etor-kin gazteak dira egun mendebaldeko hainbat gizarte gaztetzen ari direnak. Era berean, seme-alabak izateko erabakia gero eta estuago lotzen zaio gure gizarteak daraman bilakaerari, asmo eta desioei.

Gauzak horrela, Europako herririk zaharrena izateaz gain, Europako herririk zahartuena ere bagara eta horrek, gutxienez egoera honetara zerk ekarri gaituen hausnartzera eraman behar harko gintuzke. Bestalde, ezin diogu gure buruari begiratu herri normalizatua bagina lez, txikiak izateaz gainera eskumenak arras murrizturik ditugu honelako auzietan eragin ahal izateko.

Euskal Herria Europako Batasunarekin erkatuz

Gurea, gizarte zahartua da. Adin egituran gazte gutxi eta zahar ugari dago:

- Euskal Herriko adin egituran haurrak eta gazteak adin ertaineko eta adin handikoak baino askoz gutxiago dira.
- Europako Batasunean baino haur eta gazteen proportzioa txikiagoa da gurean eta era berean, 60 urtetik gorakoen proportzioan ere Europako Batasunaren aurretik gabiltza.
- Gure zahartze indizea, beraz, Europako Batasuneko handiena da (130,0).
- Egoera oso antzekoa da herrialde guztietan.
- Zahartze prozesu hau oso azkar gertatu da. 25 urtean (1981-2005) haurren proportzioa (19 urtetik beherakoak) erdira egin du.

Munduko jaiotza tasarik baxuenetakoa dugu:

- Gurean jaiotza tasa oso baxua da, mundukoaren erdia, baina Europako Batasunaren oso antzekoa (baxuagoa hala ere).
- Egoera hau azken hamarkadetako jaiotza tasan gertatuko beherakada bizkorak eragin du.
- Azken urteotan jaiotza tasa emendatzen ari bada ere, ez da nahikoa jaiotzak eta heriotzak parekatzeko.
- Ugalkortasunari dagokionez ere (ugalkortasun indize sintetiko), une honetan Europako Batasuneko baxuenetakoa da, gurea zazpi baxuenen artean dago.

Migrazio mugimenduak indize demografikoetan eragiten ari dira:

- Etorkinak dira gure adin egitura aldatzeko egun dagoen eragilerik indartsuena.
- Fenomeno hau ez da homogenea lurralde guztietan. Honela, herrialde pobreetatik datozen langile gazteekin indizeak hobetzen ari dira, eta ez da hori gertatzen adin ertaineko eta maila ekonomiko osasuntsua duten etorkinekin (Ipar Euskal Herrian biltzen dira honelako gehienak).

Familiak gero eta txikiagoak:

- Familiak gero eta txikiagoak dira, Europako Batasuneko antzeko indizeetan gabiltza.
- Etxeguneen tamaina ere txikitu egin da azken urte hauetan. Gaur egun hiru edo kide gutxiagoko guneak dira nagusi.

-Euskal Herrikoa Europako Batasuneko baina handiagoa da hala ere, gurean 2,5 pertsonak osatzen dute etxegunea, EB-ean 2,3k.

-Gero eta gehiago dira bakarrik bizi diren pertsonak %7,7, nahiz eta oraindik ez garen Europako mailara iritsi. Bakarrik bizi direnen artean adin handikoak dira nagusi.

Familia eredu berriak sortzen ari dira:

-Familia gunean ere aldaketak gertatzen ari dira. Oraindik gehienak gurasoak eta 24 urtez azpiko seme alabek osatuak dira, baina multzo honetan ere seme-alaba zaharrenak dituen multzoa nagusitzen da.

-Guraso bakarreko familiak dagoeneko %15,4 badira, eta honelakoetan 5etik 4 emakumeak dira buru. Datu honek erakusten digu Euskal Herrian ere pobrezia atarian dagoena emakumea dela.

Beraz, esan dezakegu Euskal Herriak daraman joera Europako Batasuneko eta oro har herrialde garatueto joeraren oso antzekoa dela. Hau da, gure herriaren argazki demografikoa herrialde garatuenean ber-bera da.

Euskal Herriko lurraldeen arteko desberdintasunak

Baina gure herriak joera homogeen batzuk erakutsi arren, badira gure baitako diferentziak agerian uzten dituzten datuak. Diferentzia hauek zatiketa administratiboak, egoera ekonomikoaren bilakaerak eta beste zenbait faktorek eraginak dira. Ezin dugu gure baitako homogeneotasuna azpimarratuz gaia agortuz eman beraz. Diferentziak aberasgarri izateaz gain, zenbait kasutan egoera larriak adierazten dituzte eta batez ere agerian jartzen dute hainbat gaitan gure herriak dituen desorekak. Hona azpimarratzeko zenbait datu:

- **Bizkaia eta Zuberoak jaiotza tasa txikiena.** Jaiotza indizeen artean aldeak daude herrialde batetik bestera. Zahartuena (Zuberoa) eta populatuena (Bizkaia) dira jaiotza tasa txikiena dutenak. Ez dirudi hori eragiten duten faktoreak berdinak direnik, baina aztertze gaia da.
- **Nekazal eremuetan jaiotza tasa handiena.** Nekazal eremuetan dago jaiotza tasarik handiena (Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaian batez ere).

- **Bizkaia eta Ipar Euskal Herriak berezko hazkunde negatiboa, gainerakoek positiboa.** Berezko hazkundeari dagokionez ere bada alderik. Nafarroa Garaia, Araba eta Gipuzkoak positiboa dute eta aldiz Bizkaia, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereak negatiboa. Nola liteke gune ekonomiko nagusia populazioa galtzen aritzea? Eta Ipar Euskal Herrian zer ari da gertatzen (Ugalkortasun tasa altua, emigrazio tasa altuak, bertako gazteak emigratzen...)
- **Lapurdi eta Nafarroa Beherean gazteen artean ugalkortasunik handiena.** Dena dela, agerian ekonomikoki ahulenak diruditen herrialdeak dira ugalkortasun indize sintetikoan buru doazenak. Nafarroa Behereak eta Lapurdik batez ere oso indize positiboak dituzte eta Araba zein Bizkaia askoz apalagoak.
- **Iparraldea eta hegoaldearen arteko diferentziak bakarrik bizi direnen indizeetan.** Lapurdik bikoiztu egiten du bakarrik bizi direnen Euskal Herriko proportzioa eta herrialdeka lehen hirurak iparraldekoak dira, baina Zuberoako egoera eta Baionakoa berdinak ote dira?
- **Guraso bakarreko familia gehien inguru industrialenetan.** Gainera bost familیاتatik lautan emakumea da burua, beraz, emakumeak dira pobrezian gelditzeko egoerarik arriskuetsuenean daudenak.

Euskal Herriko geroan funtsezkoak izango diren zenbait ondorio

Ipar Euskal Herriko ugalkortasuna: Ipar Euskal Herrian bertakoen ugalkortasun tasa altua izan arren, ez da nahikoa populazio galerari aurre egiteko. Gainera bertako gazteen ihesa eta hartzen ari den etorkin kopuruak egoera mugaraino eraman dute. Egun gutxiengoa dira bertakoak eta gazteen ihesa eten eta ugalkortasun tasak handitu ezean Ipar Euskal Herriaren euskal identitatea erabat galtzeko arriskua dago.

Lan baldintza estuak eta muga ekonomikoak: Lan baldintza estuek eta egoera ekonomikoak muga handia dira hainbat bikoterentzat seme-alabak izateko erabakia hartzerakoan.

Etxeko lanen banaketa desorekatua: Generoen arteko harremanean etxeko lanekin egiten den banaketa desorekatuak zaildu egiten du seme-alabak izateko erabakia.

Emigrazioa: Etorkizunean emigrazioaren beharra izango dugu gure gizarte eta ekonomia egiturari eusteko. Gauzak honela etorkinen integrazio ekonomiko zein kulturala funtsezkoa gertatuko da asimilazio prozesua indartzerik nahi ez baldin badugu.

Mendialdearen hustutzea: Mendialdea, bereziki Zuberoa eta Pirinioak, husten ari dira eta indize demografikoak oro har negatiboak dira.

Familia harremanak aldatu egingo dira. Jaiotzak gutxitzearekin neba-arrebak edo lehengusu-lehengusinak gutxiago izango dira, bai eta osaba-izebak ere, baina aldi berean pentsatzekoa da harreman mota berriak sortuko direla.

Politika publikoak: Politika hauek izango duten benetako eragina ikusteko dago. Baina pentsatzekoa da ez dutela berebiziko eraginik izango pertsonen ugalkortasunaren inguruan hartzen dituzten erabakietan. Laguntza ekonomikoak bakarrik ez du sustatuko ugalkortasuna, familia izateko erabakian egoera ekonomikoaz gain beste faktore askok eragiten dutelako. Gainera, gizonezkoen aitasun baimena har dezaten ematen diren laguntzak handiagoak direla kontuan hartuta, horren berehalako eragin soziala da gizonezkoen denborak emakumezkoen denborak baino gehiago balio duela. Irudi hori lortu nahi den helburuaren kontra joan daiteke.

Formazio aldia laburtzeak (unibertsitateko ikasketen iraupena laburtzen ari da...) ere lagun dezake pertsonen familia bat sortu eta seme-alabak izateko aukera goizago hartzeko.



Ugalkortasuna atakan. Iritzia

Amaia Elizagarate,
Gaindegiako estatistika arduraduna eta soziologoa

Mundua oso bizkor aldatzen ari dela esatea topiko bat baino gertaera garrantzitsu bat da Euskal Herriarentzat. Handiak dira aldaketak ekonomian, gizartean zein inguruan. Gure inguru gure begien aurrean aldatzen ari da askotan egokitu beharrak gogoeta egiteko aukerarik uzten ez digula. Aldaketa horien aurrean batzutan aldeko bestetan kontrako jarrera hartu ohi dugu herritar soilok. Euskal Herria aintzat hartzen dugunok, ordea, batez ere aldaketa horien ezaugarri kualitatibo bati erreparatu behar diogulakoan nago. Hots, erabaki horiek Euskal Herrikan kanpo dauden eragileek hartzen dituztela, eta guri, nolabait, bizi edo jasatea dagokigula.

Gure herria, gure gizartea eta gure ekonomia mundu mailako aldaketa horien orbitan dauden neurrian mendebaldeko ekonomia eta gizarte garatuetan gertatzen ari diren aldaketak bete-betean ari gara bizitzen. Gure gizarteak bere egin ditu gizarte garatuen ezaugarri bereizle nagusiak, horrela, gure balore eskala, aisiarako ohiturak edo gure ametsak Japongo edozein herritarrek dituenaren antzekoak direla ikusten dugu. Beharbada, izan nahia, identitate propioa garatzeko dugun kontzientzia maila da bereizten gaituena.

Baina begira diezaiozun azken urteotan bizi izan dugun aldaketen zerrendari, batez ere populazioarekin lotutakoei. Ez dago asko hausnartu beharrik esateko hogeita hamar urteren bu-

ruan gure herriak inoiz izan duen ugalkortasun tasarik txikiena eta inoizko zahartze indizerik altuena bizi izan dituela jabetzeko. Bi fenomeno horiek munduko ekonomia garatua duten herri guztietan ematen direla ikusiko dugu. Eta inork pentsa lezake bizitza maila garaiaren eztiak gozatzea merezi duela, edo areago, ezti hori gozatzeraz "kondenaturik" gaudela. Nago, ordea, fenomeno honen aurrean gogoeta beste maila batean jarri behar dugula. Gizartearen ikuspegitik ekidin ezina dirudien gertaera honek beste itxura bat hartzen du herri ikuspegiak hausnartzen jartzen baldin bagara. Hots, egoera honek zer ekarriko dio gure herriari? Nola prestatu gure burua aldaketa gogorren aurrean gure identitateari eutsi eta bideragarria izango den erantzun bat egituratzeko? Gure ahalegin eta ilusioak herri honen ekonomia eta gizartean ematen ditugunok ezinbestekoa dugu erantzunak bilatzen hastea. Bestalde, hedonismotik ezin dira galdera hauek planteatu ere egin.

Ugalkortasuna eta zahartze indizeei begira jarri eta gure herrian errealitate bakarra bizi bagenu bezala pentsatzen jartzea, ordea, akats larria da. Gure herriarentzat bideragarria izango den irtenbide bat ikustera iristeko lehenik gure baitan zer gertatzen den ezagutu beharra dugu. Badakigu, Euskal Herria bere osotasunean hartuta Europako Batasuneko zahartze indizerik altuena dugula, badakigu gure ugalkortasun tasa emendatzen ari bada ere munduko tasarik baxuenetakoa dugula. Baina ez da aski. Herri ikuspegia hartuta eta Herriaren geroari eustea helburu izanda, gure geografia fisiko eta sozialean dauden desberdintasunak ezagutu eta serio ebaluatzeraz iritsi behar dugu. Utz iezadazue apur bat zehazten esaten ari naizena. Esaterako, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Nafarroa Garaiko mendialdean bizi den despopulatuak eremu hau hustutzeko bidean jarri du. Baina hein berean, bertan bizitzeko hautua egin duten gazteek seme-alabak hazi eta bertan txertatzeko ahaleginean gure hiriguneetan ezagutzen ez den ugalkortasun tasa ekarri dute. Beraz, jabetu behar dugu inguru horretan, bertako herritarren konpromisorik sendoenak ere ezin duela egoera emendatu, herri ikuspegi pentsatu eta jarduteko gaitasunik bagenu inguru horrek (eta bere balore guztiek, tartean identitarioek) gure arreta berezia eskatuko lukete. Inguru horiek bizi duten oreka zailean utzi al daiteke beren biziberritzea beste herrietatik datozenen laguntzaren mende?

Beste errealitate bati erreparatzen hasita, ezin dugu saihestu gure populazioaren %56,0 biltzen duten eremuan (Kostaldea) etor daitekeena. Bertako ekonomia eta zerbitzuen sareak ezinbestean beharko ditu langile berriak. Bizimodu hobea baten bila datozen herritarrak milaka behar izango dira urtetan eraikitako sareari eusteko. Baina aski sendo ote gaude herritar berri horiei behar den arreta eskaintzeko? Prest al ditugu integrazio eta laguntza tresnak? Esaterako, zer egin behar dugu Lapurdiko kostaldera datorren etorkin frantsesa, kultura maila jasoa duena eta kultura hegemoniko batetik datorrena gurera ekartzeko? Eta zer Donostian, Eibarren edo Bilbora etorri eta eskulanik txarrenak egitera doan senegaldarra edo magrebndarra gizarteratzeko? Bistan da egoera oso desberdinak direla, izan ere inmigrazioak oso aurpegi desberdinak ditu gure herrian.

Bestalde, herri ikuspegi batetik esan al dezakegu gure ugalkortasun maila baxua eta zahar-
tzea atzerritik etorritako herritarrekin konponduko dugula? Beharbada ekonomiaren premiak
asetuko ditugu, baina herri gisa zerbait gehiago behar dugulakoan nago.

Esandakoak esanda, ohikoa da gure artean ugalkortasun maila baxuaz mintzatzean gaz-
teen "utzikeria" edo emakumeen "berecoikeria"ren gaia azaleratzea. Ikuspegi hori gainditu be-
harra dugu, baina ez zaharkitutako baloreak adierazten dituelako bakarrik, errealitatea
desitxuratzen duelako batez ere.

Izan ere, seme-alabak izateko erabakia dugun bizimoduari oso loturik dago. Batetik aldatu
egin dira gure baloreak, autonomia, autogarapena... gure gizartean eta gutariko bakoitzean
sakon errotu eta balore gisa azpimarratzen ditugun horien ondorio dira. Baina badira bestalde,
ditugun lan baldintzak, etxebizitza duin bat eskuratzeko dugun zailtasunak edo gizon eta ema-
kumeen arteko harreman eta lan banaketan dagoen desorekaren ondorio.

Beraz, egun Euskal Herriak duen ugalkortasun maila baxuak gure herria atakan jarri duela
esan dezakegu. Eta ataka honetatik ahalik eta sendoen ateratzen asmatu beharko dugu. Aha-
legin horretan, ordea, ezin dugu gure burua engainatu, herri ikuspegia behar dugu. Gure eko-
nomia bezala gure identitatea auzitan dagoela jabetu behar dugu (oso nabarmena da hori
ekialdeko lurraldeetan). Seguru aski, luze itxaron beharko dugu egoera hau iraultzeko bidean
jarriko gaituen egitasmo bat ikusteko. Gaur gaurkoz eztabaidarik ematen ari denik ere ez dut
ikusten, ez husten ari zaizkigun eskualde eta herriez, ez etorkin mota desberdinen eraginaz edo
hauen integrazioaz, ez gizarte eredu eta eredu ekonomikoa egokitzeaz seme-alabak, gurasoak
edonon sortuak direla ere, gure herrian sor eta bizi daitezen.



Grafiko eta taulak: demografiaren inguruko datuak

1.- Demografia datuak




1.1.- Adin egitura eta zahartze prozesua

Adin piramidea. Euskal Herria, 2001 (%)


- Euskal Herriko sexuaren eta adinaren banaketak, aspaldian, ez du piramide itxurarik. Piramide baina, erronbo luzatua dirudi.
- Adin txikiko taldeetan baino herritar gehiago dago adin ertaineko zein adin handiko taldeetan.
- Adin tarte gazteenetan handiagoa da gizonaen pisua eta zaharretan, berriz, emakumezkoena.

Adin piramideak. Euskal Herria, Europa eta mundua, 2001 (%)

- Munduko adin eta sexu egiturak, piramide itxura izaten jarraitzen du; eta, Euskal Herriko adin banaketak ez du zerikusirik egun munduak erakusten duenarekin; egun munduko biztanle gehienak haurrak eta gazteak dira.
- Beraz, Euskal Herria, mundu *gazte* honetan, herri *zahartua* dela esan daiteke.
- Dena den, Euskal Herriko irudiak zerikusi handiagoa du Europako irudiarekin. Euskal Herriko errealitatea testuinguru zabalago horretan kokatu behar da: herri *garatu* eta aberatsak zahartzen ari dira.
- Herrialde horietan gero eta jende gehiago dago adin ertain zein zaharreko tarteetan, eta gazteen eta haurren proportzioa, berriz, jaisten ari da.
- Herrialde aberatsetan, oro har, bizi-itzaropena luzatu eta jaiotzak gutxitu direnez, egungo adin banaketa horretara iritsi gara.




Biztanleriaren adinaren arabera banaketa. Euskal Herria, Europa eta Mundua, 2001 (%)



- Halere, Euskal Herria, mundua baino zaharra goa ez ezik, Europa baino zaharra goa ere bada.
- Proportzioan haur eta gazte gutxiago dago gurean (%33,2) Europan baino (%38,6).
- Era berean, 60 urtetik gorako biztanle proportzioa handiagoa dugu (%23,1) Europak baino (%20,3).
- Hona ezberdintasunaren funtsa. Gurean Europan baino haur gutxiago jaio dira azken bi hamarkadetan.


Zahartze indizea. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001



•Zahartze fenomenoaren adierazpen sistetikoak: zahartze indizea (60 urtetik gorakoak zati 20 urtetik beherakoak)

•Ondorioa: Euskal Herriko zahartze indizea Europako Batasuneko estatu guztietakoa baino handiagoa da. Alegia, guztiak dira Euskal Herria baino *gazteagoak*.

Adin piramideak. Euskal Herria, 1975-2001 (%)




- Euskal Herrian, duela 25 urte baino askoz gazte gutxiago eta adineko gehiago dago proportzioan

- Haurren proportzioak ia erdira egin du (19 urtetik beherakoak %35,4tik %17,8ra), adinekoena, berriz, bikoiztu egin da (75 urtetik gorakoak, %3,3tik %8,0ra).

- Euskal Herriak, beraz, 25 urte hauetan zahartzte prozesu sakon eta azkarra jasan du; Piramidearen itxura ikustea besterik ez dugu.

Zahartze indizea, herrialdeka. Euskal Herria, 2001




- Zahartze prozesua herrialde guztietan eman da; guztien zahartze indizea Europako batez bestekotik gora dago.

- Araba eta Nafarroa Garaia dira Euskal Herrialderik gazteenak


- Zuberoa da, berriz, zaharrena.

Zahartze indizea, eskualdeka. Euskal Herria, 2001



1.2.- Jaiotzak eta heriotzak


Jaiotzak, heriotzak eta berezko hazkundera, Euskal Herria, 2004




- 2004. urtean, Euskal Herria, jaiotakoak ia 29.000 eta hildakoak, berriz, ia 27.000.

- Berezko hazkundera (jaiotza eta heriotzen arteko kenketa), beraz, 2.068.

Jaiotza tasak. Euskal Herria eta mundua, 2004



Heriotza tasak. Euskal Herria eta mundua, 2004




- Munduko Jaiotza tasaren erditik behera dago Euskal Herria.

- 2004. urtean, munduan 21 haur jaio ziren 1.000 biztanleko; Euskal Herria, berriz, 10 besterik ez.

- Hilkortasun tasa, berriz, ia parekoak dira munduan eta Euskal Herrian.

Jaiotza Tasak. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2004 (%)



•Euskal Herrian, batez beste, Europako Batasunean baino jaiotza gutxiago

•1900-2000 hamarkadan, Europa osoan ez zegoen estatu bakar bat bera ere Euskal Herrikoa baino jaiotza tasa txikiagoa zuenik.


•Euskal Herrian, batez beste, mila biztanleko 8 haur jaiotzen zen orduan. Europako

Batasuneko estatuak baxuenak 9tik gora zeuden orduan.

•2004. urtean ez da jada Europako herrien artean haur gutxien jaiotzen den lekua.

•Joera aldatu egin da, beraz, apal bada ere, jaiotzek gora egin dute Euskal Herrian. Ikusi dezagun.

Jaiotzen, heriotzen eta berezko hazkundearen bilakaera. Euskal Herria, 1962-2004




- 1960-1970: haur asko jaio ziren, 50.500 jaio berri inguru urteko.

- 1976. urtetik aurrera jaiotzen kopurua behera egiten hasi zen, azkarrago hasieran polikiago gero. 1974. urte arte. Urte hartan inoiz baino haur gutxiago jaio zen Euskal Herria (22.693 besterik ez).

- 1994 urtetik aurrera, poliki baina etenik gabe ari da handitzen jaiotzen kopurua.


- Azken datuen arabera, 28.806 haur jaio ziren Euskal Herrian 2004 urtean; 1994. urtean baino 6.113 gehiago (1986. urtetik kopuru altuena).

Jaiotza eta heriotza tasen bilakaera. Euskal Herria, 1962-2004



- 70ko hamarkadaren erdialdean, jaiotza tasak nabarmen jaisten hasi ziren.
- Beharakada honen oinarrian, jendarte aldaketa garrantzitsuak aurki daitezke: krisi ekonomikoak bizi-baldintzak zailtzea eragin zuen eta oinarrizko aldaketa kulturalak ere gertatu dira.
- Biztanleriaren berezko berritzea ziurtatzeko, emakume bakoitzak batez beste 2,1 haur izan beharko lituzke; azken hamarkadako euskal bikoteak kopuru horren erdiaren inguruan egon dira.
- Heriotzen bilakaerak, berriz, goranzko joera makala erakusten du.
- Euskal Herriaren adinkako banaketa ezagututa, badirudi, hurrengo urteetan, heriotza tasak handitzen jarraituko duela.

Jaiotza eta heriotza tasak, herrialdeka. Euskal Herria, 2004 (%)



- Proporzioan, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaian jaio ziren haur gehien 2004 urtean (11,1 eta 10,9 haur 1000 biztanleko, hurrenez hurren); Bizkaian eta Zuberoan gutxien (%9,0).

- Proporzioan, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hil zen jende gehien (%14,3 eta 13,7). Europako Batasuneko estatuen artean ez dago bi herrialde horietakoa bezain hilkortasun tasa handietara iristen den estaturik.

- Gutxien, berriz, Araban hil zen (%7,8)


Jaiotza, heriotzak eta berezko hazkundera, herrialdeka. Euskal Herria, 2004



•2004. urteko berezko hazkundera positiboa izan da Nafarroa Garaian, Gipuzkoan eta Araban.

•Negatiboa gainontzeko 4 herrialdeetan, hots, herrialde horietan jaio baino jende gehiago hil da urte horretan.

Jaiotza eta heriotza tasen bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1960-2004



- Jaiotza tasen beherakadak ez du indar bera izan herrialde guztietan; 60ko hamarkadan jaiotza tasa handienak zituzten herrialdeetan jaiotzen dira egun haur gutxien.


- 1960-2001 epealdian jaiotza tasak beti izan dira heriotzak baino handiagoak Naf. Garaian eta Araban. Gainerako herrialdeetan, aldi batzuetan gutxienez, heriotzek gainditu egin dute jaiotzen kopurua.

- Bizkaiak jasan ditu aldaketa sakonak; jaiotza tasa handiena izatetik, txikiena izatera pasa da.

- Gipuzkoak eta Arabak joera bertsua izan dute. Naf. Garaiak ere bai baina abiada motelagoan.

- Lapurdik, Naf. Behereak eta Zuberoak ez dute jasan hain bilakaera botitzik.

Ugalkortasun indize sintetikoak. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2004 (%)



• Jaiotzen afera modu sintetikoan aztertzeko, Euskal Herriko *Ugalkortasun indize sintetikoak* kalkulatu dugu. Indize honek jaiotakoak 15-49 urte bitarteko biztanleriarekin harremanetan jartzen ditu, haurrak izateko adinean dagoen biztanleriarekin, alegia.


• Horrela, 2004 urtean Euskal Herrian 18,8 haur jaio ziren 15-49 urteko mila biztanleko.

• Indize hau, Europako Batasuneko batez besteko indizea (%21,6) baino dezente txikiagoa da.

• Europako Batasuneko 25 estatuetatik 7 soilik dute indize txikiagoa.

• Irlanda da indize altuena duen herrialdea (%29,0), txikiena duena, berriz, Lituania (%17,3).

Ugalkortasun indize sintetikoa, herrialdeka. Euskal Herria, 2004 (%)



•Ugalkortasun indize altuena Nafarroa Behereak eta Lapurdik dute; Europako Batasuneko batez bestekoa baino altuagoa.


•Euskal Herriko batez bestekotik gora ditugu ere, Nafarroa Garaia eta Zuberoa (%20,9) eta Gipuzkoa (%19,2).

•Arabak eta Bizkaiak dituzte indizerik txikiak (% 17,4 eta % 17,1, hurrenez hurren). Europako Batasunean ez dago Bizkaiak baino indize txikiagoa duen herrialderik.

2.- Bizikidetzeta eta familia

2.1.- Etxegune tamaina

Etxebizitza nagusietan bizi diren biztanleak, etxegunearen tamainaren arabera.
Euskal Herria, 1991-2001 (%)




- Euskal herritarren erdiak baino gehiago (%50,9) hiru kide edo gutxiagoko etxeetan bizi dira; batez beste 2,8 kidez osatutako etxeguneetan bizi gara.

- Biztanleen laurdena (%26,6) bakarrik edo beste kide batekin bizi da.

- 1991-2001 urte bitartean, neurri txikiena duten etxeguneetan bizi direnen ehunekoak izan dira gehien handitu direnak.


- Etxeguneen neurriaren txikiagotze honek familia egituren baitan ematen ari diren aldaketan berri ematen digu.

Batez besteko biztanle kopurua etxebizitza nagusi bakoitzeko.
Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001



- Europako Batasuneko testuinguruan, etxeguneen batez besteko neurria Euskal Herrikoa baino txikiagoa da; 2,5 kide.
- Iparraldeko herrialdeetako biztanleak, oro har, kide gutxiagoko etxeguneetan bizi dira.
- Hegoaldeko zein ekialdeko estatuetan, berriz, neurri txikiko etxeguneetan bizi direnak gutxiago dira.
- Euskal herrialdeetan, Lapurdi da, batez beste, etxegune txikietan biztanle gehien dituen (2,3), EBko batez bestekoaren azpitik.
- Beste muturrean, Nafarroa Garaia dugu; batez beste 2,9 pertsona etxegune bakoitzeko.

15 urtetik gorako biztanlerian, bakarrik bizi diren pertsonen ehunekoa.
Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (%)




- 220 mila lagun (15 urtetik gorako biztanleen %8,7) bakarrik bizi dira Euskal Herrian.

- Bakarrik bizi diren hauek definizioz familia bat osatzen ez badute ere, hauen kopurua handitzeak zerikusi zuzena du familia egiturak jasaten ari diren aldatetekin.

- Proporzioan, dena den, Europako Batasuneko estatu gehienetan jende gehiago bizi da bakarrik Euskal Herrian baino.

- Lau estatuetan soilik bizi dira gurean baino jende gutxiago bakarrik.


Bakarrrik bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak, sexuaren arabera. Euskal Herroa, 2001 (%)



Iturria: *Datu Talaia*. Biztanleria eta etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

Oharra: Euskal Herriko datuetarako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999. urtekoak dira.

Bakarrrik bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak, adin osaketa. Euskal Herroa, 2001 (%)




Iturria: *Datu Talaia*. Biztanleria eta etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

Oharra: Euskal Herriko datuetarako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999. urtekoak dira.

- Bakarrrik bizi diren profila: emakumezkoa eta adindua.
- Bakarrrik bizi diren 5 pertsonetatik 3 emakumezkoak dira.
- Adin tarteei erreparatuz, berriz, erdiek 60 urte baino gehiago dituzte.

Bakarrrik bizi diren pertsonen biztanlerian duten pisua, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)




- 10 emakumeetatik 1 bakarrrik bizi da, gizonen %7,3.
- 60 urtetik gorakoan artean gehiago dira bakarrrik bizi direnak. Gainerakoetatik, 30-39 urte bitarteko biztanleen artean bakarrrik bizi diren ehunekoak apur bat altuagoa da; emantzipazio berantiarrik, edo banaketa eta dibortzioek eragindakoa seguru asko.


• Adin tarte gazteetan, gehiago dira bakarrik bizi diren gizonetzkoak emakumezkoak baino. Izan ere, batetik, emantzipatzen diren gazteen kasuan, gizonetzkoen soldatak errazago ahalbidetzen dute hori, eta bestetik, banaketa eta dibortzio gehienetan emakumea da guraso-agin-tea eskuratzen duena.

• Adin tarte zaharragoetan gehiago dira bakarrik bizi diren emakumezkoak, asko alargunak.

Bakarrik bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak, sexuaren arabera eta adinaren arabera, biztanlerian duten pisua. Euskal Herria, 1991-2001 (%)




• Beste edozein etxegune eredu baino gehiago hazi dira bakarrik bizi diren pertsonen etxeguneak.



• Hazkundera orokorra izan da gainera: adin tarte guztietan eta emakumezkoetan zein gizonetzkoetan.

• 1991. urtean 124.009 ziren pertsona bakarraz osatutako etxeguneak; hamar urte beranduago, 220.360 dira

Bakarrik bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak, biztanlerian duten pisuaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




- Herrialdeka aldeak esanguratsuak dira. Lapurdin, bakarrik bizi direnen proportzioak (%17,6) erraz bikoizten du Euskal Herriko batez bestekoa (%8,7).

- Batez bestekoak txikiagoak dira Araban, Nafarroa Garaian eta Bizkaian.

2.2.- Familia gunek

Familiak gunek, mota eta 24 urteko arteko seme-alabak dituzten edo ez kontuan hartuta. Euskal Herria, 2001 (%)




Iturria: *Datu Talaiak*. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).

Oharra: Euskal Herriko datuetarako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999. urtekoak dira.


- Euskal Herrian 800.206 familia gune daude.
- Maiztasun handiena duen familia eredua, ia guneen erdia (%44,4), 24 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituen bikoteena da.
- Oso hurbiletik jarraitzen diote, ordea, adin horretako seme-alabarik ez dituzten bikoteek (%40,2).
- Dena den, aipagarriena zera da: familia gune hauen ia erdietan (%47,3) ez da 24 urte baino gutxiagoko seme-alabarik bizi.

Familiak, 24 urte arteko seme-alabekin, haur kopuruaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)



- Familia gune guztien erdia baino gehiagotan (%52,6), 24 urte baino gutxiagoko seme-alabak bizi dira; %47,4tan ez da bizi adin horretatik beherako seme-alabarik.
- Gehienak seme-alaba batekin (%26,1) edo birekin (%22,2); eta oso gutxi 3 edo gehiagorekin (%4,3).

Familiak 24 urte arteko seme-alabak dituzten edo ez, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




- 24 urte arteko seme-alabekin bizi diren familia guneak, gehiago dira Nafarroa Garaian eta Araban.

- Gutxiago dira, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

- Dena den, aipagarria zera da: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian erdia baino zertxobait gehiago dira 24 urte arteko seme alabekin bizi direnak.

- Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan erdia baino apur bat gutxiago dira.

24 urte arteko seme-alabak dituzten familiak, seme-alaba kopuruaren arabera, herrialdeka.
Euskal Herria, 2001 (%)




- Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan 24 urte baino gutxiagoko seme-alabekin bizi diren familiak gutxiago izan arren, familia horien neurria handiagoa da gainerako herrialdeetan baino.

- Nafarroa Garaian ere, 3 seme-alaba edo gehiago dituzten familien portzentajea Euskal Herriko batez bestekotik gora dago.

- Azpitik, Gipuzkoa, Araba eta, batez ere, Bizkaia.

2.3- Guraso bakarreko familiak

Guraso bakarreko familia kopurua, familia buruaren sexuaren eta adinaren arabera.
Euskal herria, 2001




- 122.436 mila dira guraso bakarreko familiak Euskal Herrian; Euskal Herriko familia guztien %15,4).

- Guraso bakarreko familien artean, gehienak emakumezkoen ardurapean daude, hots, Euskal Herrian guraso bakarreko 5 familiatatik 4tan emakumea da buru.

- Guraso bakarreko 10 familia burutatik 4k (%40,2) 50 urte baino gutxiago ditu, eta gainontzeko 6k (%59,7) 50 urte baino gehiago.


Guraso bakarreko familia guneak osatzen duten ehunekoa.
Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (%)



•Europako testuinguruan, Euskal Herriko guraso bakarreko familien kopurua erdiko balioetan kokatzen dira; Letoniaren eta Zipreren muturreko balioetatik urrun.

•Datu kurioso bat: Europako Batasuneko estatuekin alderatuta, Euskal Herria da, Espainiako Estatuaren atzetik, guraso bakarreko familien buru, proportzioan, gizonezko gehien dituen.


Guraso bakarreko familien pisua. Euskal Herria, 1991-2001 (%)



•Guraso bakarreko familiak bestelako guneak baino gehiago hazi dira.

•Beste familia ereduak %2 hazi badira 1991 urtetik 2001 urtera, guraso bakarrekoak %34,3 hazi dira.

Guraso bakarreko familiak famili guneen artean, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




•Guraso bakarreko familien batez bestekoaren gaintik ditugu Nafarroa Garaia eta Gipuzkoa.

•Bizkaia bat dator batez bestekoarekin.

•Araba, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta, azkenik, Zuberoa batez bestekoaren azpitik dabil-tza.

Familia guneen artean guraso bakarreko familien pisua, herrialdeka.
Euskal Herria, 1991-2001 (%)



- 1991-2001 urte bitartean, Araban hazi dira gehien guraso bakarreko familiak (%51,1 hazi dira), eta ondoren Nafarroa Garaian (%44,2).
- Antzeko hazkundea izan dute (%30aren bueltan), Gipuzkoan, Bizkaian eta Lapurdin.
- Azkenik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan hazi dira gutxien (%11,5 eta %7,2, hurrenez hurren).



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 Andoain · www.gai degia.org · Tel. +34 943 304 365